

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Gobernuaren politika zinegetikoa azaldu dio Nafarroako Ehiztarien Elkarteari

Azken urteetan atzerakada izan duten espezie zinegetikoen habitata berreskuratzeko proiektu pilotua onartuko du Exekutiboak.

Jueves, 21 de julio de 2011

Nafarroako Lehendakaria den Yolanda Barcina Angulo eta Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Saileko kontseilaria den Lourdes Goicoechea Zubelzu Nafarroako Ehiztarien Elkarteko (Adecana)

ordezkariekin bildu dira,

Nafarroako Gobernuak politika zinegetikoaren inguruan landuko dituen ildoak azaltze aldera. Ehiztarien izenean, Carlos Irujo Beruete eta Jesús Irazola Ursúa joan dira, Adecanako lehendakaria eta idazkaria, hurrenez hurren.

Nafarroako Gobernuaren asmoa da interesa duten aktore guztien adostasunean eta parte-hartzean oinarritutako politika zinegetikoa garatzea. Barcina Lehendakariak eta Goicoechea kontseilariak Adecanako ordezkariari adierazi die Gobernuak jakin badakiela ehizak zer-nolako garrantzi soziala duen Nafarroan, eta jarduera zinegetikoak biodibertsitatearekin eta nekazaritza-jarduerarekin bateratzeak duen garrantzia ulertzen duela. Gainera, jakinarazi die Nafarroako Gobernuak laster onartuko duela azken urteetan atzerakada handia izan duten espezie zinegetikoen habitata berreskuratzeko proiektu pilotuari hasiera ematea.

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Sailak



Barcina Lehendakariaren eta Adecanaren arteko bilera. Ezkerretik eskuinera, Jesús Irazola, Barcina Lehendakaria, Goicoechea kontseilaria eta Carlos Irujo

duela gutxi aldatu du Antolamendu Zinegetikoaren Planak (AZP) egiteko modua, idaztea erraztu eta merkeagotzeko eta ehiza-barrutien kudeaketa zinegetikoan eraginkorragoak izateko asmoarekin. AZPeren helburua da oreka lortzea ehizaren aprobetxamendu ezin hobearen eta populazio zinegetikoak hartzen dituen lurraldearen zaintzearen eta hobetzearen artean. Nafarroan, dagoeneko abian jarri da ehizako 245 barrutitan; beraz, kudeaketa zinegetikoa hobetzeaz gain, nekazaritzari eragindako kalteak murriztu dira. Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak ematen ditu AZP horiek idazteko, ehiza-barrutietan aplikatzen den ikusteko zainzaileak kontratatzeke eta nekazaritzaren kalteak prebenitzeko neurriak ezartzeko. Halaber, hala gertatuz gero, laguntzak ematen dizkie